

Euskeraz bi itz

Euzko Gaztedi, [1967].

Ezin ba da gure izkuntzean bi itz benik esan gabe agerkari au zure begien aurrean zabaldu.

Ez, gero, utsune itxusi bat bete gabe usteko bildurrarekin bakarrik. Ori ere ala izango litzake, utsuna ikusiko litzake. Bañan orretzaz gañera, axaleko arrazoi onetzaz gañera, barrandik eragiten digun biurritasun batek orretara biartzen gaitulako; naiz eta agerkari onen jo-muga nagusia benezolarrak izan, bera irikitzeke lenengo itzak euskeraz, gure arima-izkuntzean, esan bear.

Ogei ta zortzi urte ba dira lenengo guda garaieko euskeldunak onera eldu zirala, ta ogei ta bost bete dira bere Eusko-Etxea egin zutela. Euskotar aiek euskeraz itz egiten etorri ziran geienak, eta bere ondorengoak ere euskeraz itz egin eta euskeraz lan egin dute Venezuela'n. Ez nai genduken bezala eta nai gendukean aña, bañan euskerak izan du gure etxeetan eta gure Etxe nagusi onetan ere bere leku berezia.

Emen euskeraz egin ditugun lenen berri ematea euskel idazle trebe baten gain geratu da: ibinagabeitia'tar Andima.

Andima berak egiña izan da lana, ta bere apaltasunak ez dio bere lana nolakoa ta zer neurrikoa izan dan esaten utzi. Batere beldurrik gabe esan genezake bera dala gaur bizi diran euskel idazleetatik gain-gaiñeko bakanen artean onenetakoa. Andima'k erabiltzen duan euskera arima barren-barrendik urtetzen zaion iturri garbikoa degu; gañekook, erderaz ere idazten aritu geranok, ba ditugu alako erdel kutsuko itz eta joskerak, bañan Andima ez degu orrelako nastetan errez arrapatuko; ez arrokeriz garbi-zalea dalako, berak amagandik jasotako bere izkuntza garbi-garbian gorde ta iraun arazi diolako baizik.

Eta euskera ez da Andima'ren ezpañetan eta idaz-bideetan garbia bakarrik izan, baita urgaria ere.

Egin dituan liburuetzaz gañera, Andima'k idatzi ditu Euzkadi'ko aldizkarietarako makiña bat lan; orretzarra irrati-lanak ere idatzi ditu, ta itzaldiak ere eman ditu; eusko ikastolan ere maixu izan degu Caracas'en, eta besteak idatzitako makiña bat lan tajutu ta orraztu ta zuzendu ditu.

Izan ere, euskera gai edo bide ba dezu, or daukazu Andima edozer artu-eman edo lanetarako gertu!

Orain, bear-bearrezkoak ziran itz oiek esan eta gero, erderaz beste bigarren atea iriki, ta ara emen Eusko-Etxea'k bere 25'garren urtea ospatzeko antolatu dizun agerkari au.